

Jaurlaritzak eta MCCk enplegua sustatu eta banatzeko hitzarmena sinatuko dute

Akordioak jasotzen duenez, kooperatibetan 'denbora mugatuko bazkidea' sortuko da

Eusko Jaurlaritzak eta MCCk hitzarmena sinatuko dute kooperatibek enplegua sortu eta banatzeko helburuz. Hitzarmenaren berrikuntza nagusietako bat kooperatibetan denbora mugatuko bazkidea sortzea da.


Erredakzioa / Bilbo

JAURLARITZAKO Gobernu Kontseiluak atzo onartutako hitzarmenak lau atal jasotzen ditu MCCrekin lankidetzan jarduteko: langileen formazioa, ekonomia sozialaren zuzperketa, lan arriskuen prebentzioa eta, garrantzitsuena, enplegu politika eta lan banaketa. Akordioak lau urteko iraupena izango du.

Enplegu eta lan banaketari dagokionez, Jaurlaritzako Lan Sailak lanaldia murriztu eta banatzeko iaz proposatutako neurriak indarrean jarriko dituzte Arrasateko kooperatibek. Hain zuzen ere, lanpostuak uzten dituzten edo banatu nahi dituzten kooperatibistak ordezkatzeko langile berriak kontratatzeagatik subentzio publikoak jasoko ditu MCCk.

MCC ez da izango Ramon Jauregik proposatutako neurriez baliatuko den enpresa edo talde bakarra. CAF, Otsein, Sidenor, Michelin eta Alfa enpresak ere antzeko neurriak gauzatzea aztertzen ari dira. Arrasateko kooperatiben kasuan hitzarmenak esanahi berezia du ordea, EAEko industri talde nagusia dela kontuan hartuz: MCCk 30.000 langile inguru ditu, eta 2000. urterako beste 8.000 lanpostutik gora sortzea du aurreikusia.

Denbora mugatuko bazkidearen figura berriaren helburua



Ramon Jauregi Lan sailburua eta Antonio Cancelo MCCko presidentea.

OLALDE

kooperatibek kontratatzen dituzten behin-behineko langileak ordezkatzea da. Kooperatibetako langileen % 18 inguru ez dira bazkideak izaten, eta haietarik asko behin-behinekoak izaten dira, enpresen aldikako produktzio beharrak eraginda.

MCCk bereganatuko duen figura berriari esker, kontratatutako langileek bazkideen eskubide bertsuak izango dituzte, eta bazkide finkoak izateko atek zabalik edukiko dituzte, hain zuzen ere kooperatibek bazkide kopurua gehitu nahi dutenean.

Lana banatzeko neurriak • Azpimarratzekoa da MCCk aurrerantzean eratuko dituen lanpostu berrien % 15 edo % 10 lana

aurkitzeko zailtasun handienak dituzten pertsonentzat izango direla, hau da, langabezia urte eta erdi baino gehiago egondako 16 eta 29 urte bitarteko gazteentzat eta famili ardurak dituzten emakumezkoentzat.

Lana banatzeko neurri zehatzei dagokienez, MCCren eta Lan Sailaren arteko hitzarmenak adin jakin bateko kooperatibistentzako erretiro plan progresiboak zabaltzea jasotzen du, langile zaharra jubilatzen ari den bitartean gazteak sartzea ahalbidetzeko.

Lan Sailak proposatu eta MCCk onartutako beste neurri bat eszedentziak hartzen dituzten langileak ordezkatzeko kontratazioa sustatzea da. Esze-

dentzia horiek amatasunagatik, ezintasunagatik, soldadutza edo ordezko zerbitzuagatik eta, orokorrean, legeak jasotako arrazoiengatik izan daitezke.

Jauregiren departamentuak iaz neurri horiek proposatu zituenan diru sariak eskaini zituen onartzen zituzten enprezentzat, hala nola 500.000 pezeta arteko laguntzak eta kotizazio sozialen % 50 edo % 100eko subentzioa kontratu berri bakoitzeko.

Jaurlaritza-MCC hitzarmenaren arabera, Arrasateko taldeak Langai enplegatze zerbitzuekin ere lan egingo du zentro kolaboratzaile gisa, kooperatibek eskainiko dituzten lanpostuetarako bitartekaritza lanak egingez. X

Ardi esnearen prezioaren gainean akordioa egon dela ukatu egin du EHNEK

■ Gaztategiek litroko 125 pezeta ordainduko zutela esan zuen Jaurlaritzak

A. Agirreurreta / Donostia

IRAGAN ostiralean bilera egin zuten Idiazabal Jatorri Izeneko gaztategietako nagusiek eta artzainek, Eusko Jaurlaritzako arduradunek deituta, ardi esnearen prezioaren gainean akordioaren bat lortzeko asmoz. Izan ere, kanpaina hasieratik ardi esne litroa 90 eta 110 pezeta bitartean ordaintzen diete gazta enpresek artzainei, aurreko urtean baino hogei pezeta merkeago.

Apirilaren amaiera aldera, gaztategietako arduradunek eta esne ekoizleen ordezkariak lehenbiziko bilera egin zuten, esnearen prezioak ezartzeko sistema finkatzeko eta gutxieneko salneurriak hitzartzeko. Gaztategietako nagusiek, baina, ez zuten artzainek egin proposamena onartu. Duela hamar egun inguru bildu ziren atzera Idiazabal Jatorri Izeneko enpresak eta artzainak. Gaztategietako beste proposamen bat jarri zuten mahai gainean, baina esne ekoizleei onartezina iruditu zitzaizkien.

Hala ere, bigarren bileraren ostean, akordioa bazegoela zabaldu zuen German Muruamendiaren Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza arduradunak, eta enpresek artzainei ardi esne litroa 125 pezeta ordainduko zutela esan zuen. EHNE indikatua, baina, ukatu egin du hori dela eta oso larritzat jo du Muruamendiaren esandakoa, «ez baitu egia esaten, eta negoziazioaren bidea nahastu baino ez duelako egiten». X

Jaurlaritzak amore eman arte grebari eutsiko diote Justiziako langileek

■ Gutxieneko zerbitzuetan sartzen ez dena bertan behera utziko dutela esan dute

F. Iriarte / Gasteiz

OIHARTZUN zabala izan zuen Justiziako langileen lehen greba egunak, eta, langileen batzordeko kideek esan zuten bezala, bide beretik segitu zuen bigarrenak. Beraien datuen arabera, Araban %90k greba egin zuen atzo, eta Gipuzkoan eta Bizkaian %80k. Greban dauden langileek uste dute Jaurlaritzak amore eman beharko duela, eta hori lehenbailehen izan dadin, dei egin die greba lagundu ez duten langileei, lanuztea erabateko balitz arazo astebetean konponduko litzatekeela uste baitute.

Justiziako langileek eskatzen dute beste funtzionarioen lan baldintzak izatea; izan ere, EAEk Justizia Administrazio langileen

eskuduntza lortu zuen joan zen urtean, eta orain Justiziako 1.700 langileen lan baldintzak ziurtatu behar ditu. Gaur egun Justiziako langileek 125.000 pezeta irabazten du hilero, greba batzordeko kideek jakinarazi dutenez. Lakuan lan bera egingen duten funtzionarioek baino ia 50.000 pezeta gutxiago hilero. Jaurlaritzak, egoera konpontzeko, agindu die 2.003. urtean soldatak parekatuta izango direla, baina langileek diote ezin dutela hainbeste itxaron. «Ez gaude prest hainbeste denbora itxaroteko, beste zerbait kasuetan Jaurlaritzak berehala parekatu dituelako soldatak eta lan baldintzak», esan zuen Jorge Lezea greban dauden langileen batzordeko kideak.

Langileen lanuzteak epaitegietako eguneroko jardura aldatzea ekarri du. Atzo sozialeko epaitegian ez zen juiziorik egin, kaleratzearenak salbu, eta horiek gutxieneko zerbitzuen barruan daudelako; instrukzioko epaitegian enkanteren bat egin zen, idazkarien arabera gutxieneko zerbitzuen barruan sartzen delako, nahiz eta langileak iritzi horren aurka azaldu ziren.

Bilbon, bestalde, salaketa jarriko dute Justiziako Epaitegi Gorenean, herenegun Donostia-ko epaitegian ez zitelako sartzen utzi. Greba laguntzen duten sindikatuek - ELA, LAB, UGT, CCOO eta CSIF- aurkeztuko dute salaketa, Eusko Jaurlaritzak greba egiteko eskubidea eragotzi zuelakoan. X



Justizia zerbitzuetako langileen atzoko protesta Bilbon.

XOUSE SIMAL